



PATXI BELTZAIZ

erreferentziazko tokietan ibiltzen da Tomas.

Kontakizuna Baionan kokatzen da nagusiki, eta uste dut euskaldunok leku horiek zeharkatzen ditugun gisan zeharkatzen dituela Tomasek. Baionan euskal mundua beste mundu bat da, aparteko mundu bat bezalakoa. Egunerokotasunaren literaturak errealitatearen isla izan nahi du, eta gure errealitatea kontatu, belaulaldi baten ahots bat agerraziz. Jean Etxepare aipatu dugu, eta hark *Beribilez* liburuan lekuen zeharkatzeko baliatu manera hori baliatu dut. Lapurdiko kostalde-

tik Iruñera, Etxeparek zuen begiradatik begiratu diet tokiei.

Justuki, Tomasek Normandiarako bidea hartzen du idazketa prozesuan kontzentratzeko.

Idazketa lotua da idazleak dituen baldintzei. Euskal literaturan, ipuingintzak presentzia handiagoa du beste literaturetan baino. Nobela bat baino fiteago idazten dira ipuinak, eta, liburuan agertzen diren heinean, idazketa baldintzei lotuak dira. Udan nihaurek egin izan ditut egonaldia batzuk, eta, *Haize beltza*-ren kasuan, hor naiz gehien sartu liburuan. 2023an Galizian egon

nintzen aste bat, eta nire pertsonaiekin bizi nintzen. Bi egun nehor ikusi gabe pasatu ondotik, momentu batez bizitza erreale-
ra itzultzeko beharra ikusi nuen, aski esperientzia flipagarria izan zen, baina biziki aberasgarria aldi berean. Tomasek Normandian egiten duen bidaia badu hortarik, dudarik gabe, eta bere buruaren parean, bakardade inposatu horretan, gogoetek urrunago eramaten dute sorkuntzan. **Bertzalde, deigarria da urdinararen erabilpena nobelan. Nola eraiki duzu hari urdin hori?**

Austerren liburu hastapenean urdina biziki ageri da. Sydney Orrek badu fetitxismo bat urdinaren inguruan, liburutto urdinen bilduma bat egiten baitu. Horretatik abiatua nintzen urdinari balio sinboliko handia emateko. Bestalde, Diabolo Kiwi taldearekin *Uhin galduek* diskoa atera nuelarik, ubelaren inguruan konposatu genuen gure mundua sortzeko, eta lan egiteko manera horrek interes handia piztu zidan, eta paralelismo bat ikusi dut liburuarekin. Ondorioztatzen dut, hala ere, urdina ez dela arras blua edo azula, urdina nahiko inperfektua da, eta Tomasek, beltza idatzi beharrean, nobela grisa idazten du. Zergatik ez deitu hori literatura urdina? Grisa urdina izan baitaiteke, azken finean.

Tomasek ongi erakusten du sorkuntzan deus ez dela hutsetik asmatzen eta ingurukoengandik inspiratzen dela.

Bai, biziki ongi inguratua da: hor ditu Elena, Jon Trastu eta idazketan animatzen dutenak. Ideiak xurgatzen ditu, hautatzen du zein hartu, zein ez, mustuka bat bezala funtzionatzen du. Inguruko tenperatura hartzen du, eta besteek finki ikusten dutenaz elikatzen da. Nik lagun gehienak musikan ditut, zinemaren ere batzuk, eta bistan da ene kasuan ere elikatzen naizela ingurukoek aipatzen dizkidaten liburu eta filmekin: horregatik dira hainbeste erreferentzia. Tomas memoria kulturalez axolatzen da, eta ingurukoak xurgatzen du. ●

Joxe Azurmendi gogoan



IRITZIA

Elena Martínez Rubio

Idazlea eta Filosofian doktorea

Ez da ohikoa filosofo batek filosofoak ez diren irakurle eta jarraitzaile asko izatea. Joxe Azurmendik lortu egin zuen. Volksgeist-Herri gogoa idazlanaren argitalpenaren harira BERRIA egunkarian argitaratutako elkarrizketa batean esan zuenez, liburua «irakurleria ahalik eta zabalenarentzat» idaztea izan zuen helburu. Izan ere, idaztea edo hitz egitea ez da inoiz eremu huts batean gauzatzen. Beti hartu behar dira aintzat entzuleak eta testuingurua, bai gaiak, bai erabiltzen den hizkuntzari dagokionez.

Euskara bezalakoa hizkuntza gutxiagotu baten alde egiteak zailtasunak dakartza berekin, baita filosofiaren arloan ere. Hala eta guztiz, egoera berezi hori emankorra izan daiteke. Azurmendik 2008ko Herri gogoa aipatuz dazlanean aztertu zuenez, XIX. mendeko filosofo alemaniarak sinetsita zeuden lotura bat dagoela hizkuntzen eta mundu-ikuskeraren artean. Wilhelm von Humboldten ondoko tesi hau ekarri zigun orduan gogora Azurmendik: «Lurra, gizakia eta hizkuntza, banaezinki batean haziak dira». Hizkuntzak ez dira beste planeta batetik heldu

zaizkigun izaki abstraktuak. Ingurune bati loturik jaio eta hazi dira. Herri bati eta kultura bati dagokion jakintza daramate barne. Alabaina, hizkuntza gutxiagotu bat filosofian emankorra izateko, hizkuntza eta hiztunen kezak gogoan hartuta hitz egin eta idatzi beharra dago. Azurmendik hala jardun zuen.

Bada, unibertsitateetan sortzen diren diskurtso filosofikoek ez dute oihartzunik izaten akademikoek beraiek osatutako talde

Hizkuntza gutxiagotu bat filosofian emankorra izateko, hizkuntza eta hiztunen kezak gogoan hartuta hitz egin eta idatzi beharra dago. Azurmendik hala jardun zuen

txikietatik kanpo. Dena den, zentzugabekeria litzateke bakar-bakarrik lankideentzat aritzea. Areago, Günther Anders filosofoaren iritziz (1902-1992), okin batek bere ogiak bakar-bakarrik beste okinentzat egitea bezain ez-morala. Joxe Azurmendik ez zuen horrelakorik egin, eta haren nortasunari eta euskararen aldeko hautuari zor zaizkio jendeartean izan zuen harrera. Jarrai dezagun haren liburuak irakurtzen, eta ez ditzagun inoiz filosofia, hausnarketa, kritika... alde batera utzi. ●

bertako
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

-REKIN BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus